


bidegileak



*Gracian Adema Zalduby (1828-1907)*

Egilea:

**ELENA TOUYAROU-PHAGABURU**

déma-Zalduby senpertarrak bere idazki gehienak *Zalduby* izenordez izenpetzen zituen nahiz Ch. Adéma («chanoine» hitzaren laburtadura gisara) edo Gr. Adéma (Gracian izenaren ikur gisara) erabili zituen. Bizi zenean nahiz ondotik aldizkari ezberdinetan agertu ziren haren kantika eta testu hunkigarrietarik zenbait oraino kantatzen dira iparraldean. Apeztu eta, hiru probintziak barna ezagutu zituen gizonak gure hizkuntzaren, kulturaren eta ohiduren ñabardura andana bereganatu eta aztertu zuen, politikan erregezale sutsu agertuz bizi osoan. Idazle jori, ikerlari unaezin eta euskaralari argitua baitzen XIX. mendean euskalgintzako zutabetzat zeukaten.



Gracian Adéma Zalduby kalonjea (1828-1907)

## Senpere herria

Bataio ageriak dioenez, Gracian Adéma 1828ko urtarrilaren 12an sortu zen Senperen, «Plaça chuhurrenea» etxean. Senpere herri zabala zen eta auzogunearen izena ematen ohi zen etxe izena aitzin. Jean-Bertrand Adéma (1782-1852) eta Catherine Goyeneche (1784-1829) biko-tearen seigarren eta azken haurra zen.



Larrun mendiaren magalean, Urzuri erreka-ren hegian Senpere herria

Antonio Abadiaren «Euskal pestak» saileko olerki «gudu» entzutetsuetan parte hartzeko, —bai eta politika urratsetan bere buruaren gerizatzeko— Gracian Adémak izengoiti ezberdinak erabili zituen. Hauetarik hiru azpimarra genitzake Senpere herriarekin duten loturagatik: *Senperetarra*, *Hergarai* eta *Zalduby*. Lehena, berez argi da. Hergarai aldiz Senpere eta Uzta-ritze juntatzen dituen auzogunearen izena da.

Erran zaharrak laburbiltzen ditu herrien ezau-  
garriak:

Hazparne, gizonen  
Urruña, lurrez  
Senpere, oihanez  
Uzta-ritze, zurez

Izenorde erabiliena berriz, familiak Senpereko Zalduby gunean landa bat bazuelako hautatu omen zuen. Toki hori Senpereko plazatik atera eta Donibanerako bidean, kilometro luze ba-tean da, ezker, Urguri bide seinalea dagoen tokian. Erreka hori aspaldiko eskuizkribuetan Urzuri edo Urdazuri deitzen zen, uraren zuri-tasunagatik. Baina noizbait norbaitek «z» letra borobildua «g» batentzat hartu zukeen eta Urguri idatzi ... eta grafia akats hori ez da egundaino zuzendua izan. Gaurregun «Ur hertsia» deitzen ohi da, uholde oroigarrien gunea den ibaiaren zabalera eskasa azpimarratuz.

Toki bereko Zalduenea etxearen eta Zalduby xokoaren izenek latinezko «saltus» hitza

dukete erroa (eta ez «zaldi» edo «zaldun») eta zaldubia erreka oinez trebeska daitekeen tokia da (erdaraz «gué» nahiz «vado»). Aspaldiko mendeetan, Senpereko auzogune hedatuaren erdibidean dagoen Zaldubya izan ote zen erabaki handien gunea, Uztaritzen Kapito Harri oihana izan zen bezala?

Dena den, arbola urtetsuen itzalpean, erreka hegian, udan «locus amoenus» edo atsedeen gunea zitekeen, gaurregun Senpereko aintzira den bezala.

Toki garrantzitsua zen, ezbairik gabe, ezen 1705 urtean han eraiki zuten presa edo barradera Urzuri erreka uraren indarra emendatzeko, Helbarrun auzoan 1652 urtean altxatu eiharen hobeki itzulikarazteko.

Biziaren erditsutarik goiti, erlisioneaz kanpoko gaietan, Gracian Adémak beti Zalduby ezizena erabili zuen. Ondorioz, 1880 ingurutik goiti, euskalgintzakoek Gracian eta haren iloba

(J. Blaise Adéma, 1861ean Senperen sortua) bereizten zituzten osaba Adéma-Zalduby deituz.

Hona berak idatziz utzi zuen azalpena:

Nik bi izen edo firma badituz: bat Adéma ene familiakoa, gauza edo iskribu serioetan, eta aphez gisa Elizakoetan ezartzen dudana; bertzea Zalduby, gauza profano edo politikako edo kantu irri egitekoetan agertzen dudana.

Azken hau idazle-izen kuttunena zukeen bere haurtzaroari eta erroei lotzen zuelako. Errekaren uholdeek herriaren bizia nola baldintzatzen duten entzun zukeen etxekoenganik, haien desmasia larriak irudimenean itzatuz «Uholde baten pare» kantikaren lehen neurtitzak lekuko (1877):

Uholde baten pare orai bekatuak

Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak

Nun dire fededunak? Nun dire justuak?

Azken eguna hurbil othe du munduak?



Urzuri erreka, erdaraz «Nivelles» (Errobi ttipi) deitua, herriaren izenaren osagai



Eraikuntza baliosa, herriko baldarnapezari (auzapezari) ospe eta ohore ekartzen ziona



Hau da errota edo eihera: herritarren izerdiz eta denen onetan eraikia



Urguri gaineko zubiak darama Zalduby gunera



Zaldubya: etxe izen adierazgarria, bidez haindianziona

## Senpereko hiru egoitzak

### 1) *Plaça Chuhurrenea sort-etxea eta Ademaenea etxe berria*

XIX. mende erditsutan «Plaza» auzogunea Senpereko bizi sozialaren erdigunea bilakatu zen eta Chuhurrenea, Adématarren ohantzea, hantxe izanki, Gracian haur-haurretik herri-tarren ohidura eta harat-honatei ohartu zitekeen. Hauetan azpimarratzekoak dira elizako zeremoniak: apez sartze, apezpikuaren bisita konfirmazionerako, Besta berri, Jondoni Petri herriko patroia eguna, San Bladi...besteak beste.


Elizako harat-honatez gain, laborantza munduaren egun nagusiak ere hurbiletik bizi zituzketen plazako haurrek, merkatu egunak eta abere primak, bereziki.

Karrosen ugaltzeak ondorio latza ukan zuen Adématarrentzat. Eliza inguruko karririk hertsiegiak bilakaturik, Senpereko hautetsiek bi etxeren suntsitzea deliberatu zuten. Eliza ondoan zitekeen Elizaldea erosirik, honi josia zegoen Chuhurrenea botatzea erabaki zuten 1859ko apirilaren 24an. Handik zenbait egunetara, Elizaldearen txanda izan zen.

Bihotz ximiko gaitza zitekeen... eta, kalte horren ordainez, jabeek dirua eskuratu zutela dio Dufau notarioak. Gracianen aita-mak hilak ziren ordukotzat baina hiru haurride ezkongabe bizi ziren elgarrekin sort-etxean. Ondoko urteetan, Gracianen anaia zaharrena J. Blaise arduratu zen Adémaenea etxe berriaren eraikuntzaz. Célestine Adéma (1864-1931) Adematarren iloba (ondoko edo oinordeko egina) Alexis Dourisboure medikuarekin (1863-1931) ezkondu zenetik, Dourisbouretarren egoitza izan da, gaurregun arte.



Apeztu arte, zenbat zeremoniatan parte hartu ote du Zaldubyk herriko elizan?



Gracian gazteak pilota partida ainitz ikusi duke herrian, etxetik lau urratsetan baitzuen errebotea



Eliza paretan «Alleluia» berdailez idatzi, inguruak eta borta aitzinak apaindu...Jondoni Petriren ohoretan?



Erretora belaunaldi guzietako jendearen gidari. Noren agurtzeko hainbat animazio eta apainketa?





Oihal saltegi ondoan, emazteen merkatu xokoa



Senpereko elizaren kanpokaldea, gaurregun



Ademaeneko alorraren puntako aterbea, luzaz Zirimolatz Senpereko dantza taldearen batzokia izana



1859 arte Chuhurrenea eta Elizaldea karrika nagusiko azken arbolen heinean zitezkeen elgarri josiak



«Ademania» Zalduburen liburutegia eta haren eskuizkribuen gordagia, lorategi zabalaz apaindurik



Behi eta idiak laborantzako eta garraiorako tresna bizidunak



Osaba zaharraren liburutegia... mundu bat neskatxentzat



Gracian Adéma eta haren ilobak, ibilaldi batetarik landa  
(Coll Dourisboure )

## 2) *Helbarrun Sugarreta: amaren familiaren etxaldea*

Zaldubiren aitamak 1828an Chuhurrenea etxearen jabe ziren. Aita, ofizioz medikua naski, Lot-et-Garonne departamendutik Frantziako gerlari ihes egiteko etorri zen Senpererat. Gaskoina izanki, okzitanieraz hitz egiten bazekiela pentsa liteke baina euskaraz, ez. Idazlearen ama aldiz, Helbarrun Sugarreta etxalde handiko alaba zen, familia puxanteko alaba.

Goyenechetarrek beren ontasunen araberako garrantzia ukan zuten herriko bizian eta politikan: Zaldubiren aitaxi Senpereko auzapez izan zen. J-Blaise Goyeneche amaren anaiak XIX. mendean mirespena bereganatu zuen ihesliar ospetsuak (Josep Bonaparte eta Don Carlos Karlisten burua) Senperen aterbetu zituelako eta 1816 urtean, Harispe marexalak kargu handia eman zion, buruzagi handiaren fama baitzuen.

Beste familiakide zenbaitek ere kargu politiko eta erantzukizunak ukan zituzten: Gracian Goyeneche (idazlearen gozaita naski), 1828an Donibane-Lohizuneko auzapez orde zen eta Michel Goyeneche, Mundutegi-berria etxeoko jabea, Senpereko oihanzain brigadierra zen.

Zaldubiren belaunaldikoek eraiki zuten hil hobiko 8 Adématar eta 12 Dourisbouretarren zerrenda

## 3) *Senpereko «azken egoitza»*

1843-1844 ikasturtean Gracian Larresoroko Seminario ttipian sartu zen apezteko asmoz eta, lau urteren buruan, Baionako apezgaitegi nagusian zegoen. 1853 urtetik goiti Hazparnen, Bidarrin eta Atarratzen egonik, kalonje izendaturik 1890ean itzuli zen Baionara. Halere, Senpere herria hautatu zuen azken egoitzatzat.

Baionako katedraleko hileta elizkizun edo ofiziotik landa, Senpereko hilerrian ehortzi zuten familiaren hil hobi gotorrean. Barneko hilen zerrendak xehetasun baliosak dakartzta Adémaren familia zabalaz.





Sugarreta /Zugarreta ala Zuharreta ... urteek higaturik ere, etxalde ederra (marrazkia: Maialen Touyarou)



Hilobia barnez.Familiaren ibilbidearen ezagutzeko zerrenda baliosa

## Adémaren hiru ikastegiak

### 1) *Senpereko eskola*

Chuhurreneako Adéma bikoteak hiru seme eta hiru alaba ukan zituen, hauetan gazteena Gracian zelarik. Haurtzarotik kultura, ohidura eta eleaniz-

tasunean murgildurik, hamalau urte bete arteko oinarrizko ikasketak Senperen egin zituen.

### 2) *Senperetik Larresorora*

1843an sartu zen Larresoroko «Seminario ttipian». Zaldubyk ikas mailak urtez urte gainditzen

zituen, baina «Tableau doré» ohorezko medaila horia sekulan eskuratu gabe. Baitezpadako ikasgai akademikoez gain, apezgaitegi hartan gauza ainitzen ikasteko ahala ukan zuen. Han egin ere zuen J. Battitt Elizanbururen ezagutza. Biek adin bera ukanagatik, gelan ez ziren elgarrekin Saratarrak haur-haurrean umezurtz gelditurik atzeratua baitzebilien: Adémak 4. maila hasi zuenean, Elizanburu 7. mailan zegoen. Baina barnetegian lau urte elgarrekin iraganik, biak adiskide minak bilakatu ziren. Aisialdietan, elkarlanean olerki zenbait egin zituzten eta alegia zenbait euskaratu.

Zoin dohatsu gu hemen, *jeunesse fortunée!*

Bortz orenak artean *la grasse matinée*.

Jaiki orduko lana; *plus tard le déjeuner...*

Hobeki ditakeia *commencer la journée?*

Doinu jostagin hori elebitasun onartuaren froga zaigu eta *fortunée* hitzak apezgaitegiko gazteriaren gogoz aberasteko aukera duke azpimarratzen (eta ez egoera soziala), eskola ona zela adieraziz. Ordutegia aldiz gogorra zuten: bostetan jeiki, gogo fresko zuteno ikasi eta adimena hazi ondoan, gosalduta. Halere, zoriontsu bizi zirela dio.

Gizarte arazoek eta aktualitateak ere kezkatzen zituzten hala nola 1846an aipatu miseriak: «Betiri Sants». Ohar batez argituz izenburuko hitz jokoa («BETIRI SANTS Erran nahi baita herri hautako aurthengo miseria») eta komunikazioaren errexteko (ala erri-magatik?) herri hizkuntza naturala (fonetikoa)

hobetsiz 2. bertsuan hauxe zioten laborarien egoeraz:

Kanpuan kreditik ez, etxian miseria

Horra nekhatzalien bizitze tristia

Nihon ez da posible orai bizitzia

Jainkoak izan beza miserikordia.

Aktualitateari lotu anekdotetan, Baionan erbesteratu zen Jose-Maria Iparragirre Seminario ttipira jinarazi omen zuten kantatzera eta ondotik biek ondu zuten «Zumalakarregi» kantua.

*Gauden gu Eskualdun* euskaltzaleen himnoa bilakatu zen Adémaren kantu ezagunean «Gernikako arbola»-ren eragina ukazina da:

Haritz eder bat bada gure mendietan


Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan

Frantzian, Espainian, bi alderdietan

Hemen hiru 'ta han lau, bat da zazpitan.

### 3) *Larresorotik Baionara*

Larresoroko lau ikasturteak gainditu eta, «Rhétorique» egiteko Adéma Baionako «Seminario handi»ra joan zen eta Elizanburu ordea, armadan sartu. Ondoko urteetan, bi lagun minek hautu arras kontrajarriak egin zituzten politikan: senpertarra erregezalea (xuria) agertu zen bezain errepublikazalea (gorria) zen saratarra. Baina, Adémak Elizanbururi sostengu anaikorra ekarri zion biziaren azken orenetan, etsaigoak sahestuz.



Erdaldunek ere ederki kanta zezenen, ahoskera aholku balioekin idatzi himnoa

Baionan, —ikasgai seriosek lanpeturik ala Seminario handiko buruek bertsolarien zaleztasuna «arina» kausiturik ote?— ez zuen ainitz idatzi. 1851n «Martin eta Kattalin» kantua moldatu zuen mozkortien bizimoldea eta harremanak arakatzuz.


1852ko abenduaren 17an, apeztu orduko, Larresoroko ikastegi ohirat igorri zuten irakasle gisa. Ordezkaritza batentzat deitu zuketean. Alabainan, ikasturtea bukatu arte baizik ez zen egon Maisonnave zuzendariaren meneko.

## Iparaldeko hiru probintzietan apez

### 1) Hazparneko apezlagun sei urtez: 1853-1860

*Mon premier sermon prêché à la fête locale de Hasparren 1853* liburuxkan bildua da prediku luze hura, osoki idatzia: latinezko esaldi edo zitazione batekin hasi, euskarazko itzulpena gero eta arrazoinkatze luzea ondotik, han-hemenka latina sartuz.





Prediku alkitik mintzatzeko teknikak apezgaitegien ikasten ziren

Adémaren mireslea zen J. Hiriart-Urruty hazpandarrak Euskaltzaindian sartzeko mintzaldian goretsi zuen «pilotako edo misio-netako bertsuak egiten zekien bikarioa». Apez pilotazaleak 1857an pilotariez egin zituen 22 bertsuetarik bi baziren (7. eta 8.a) Kaskoinaren omenez:

-7-

Kaskoinak eskularruz kaxkaka, xirrixtan,  
 Pilota nora nahi zabilkan ximixtan;  
 Jokoz bezenbat kaskoz, munduaren bixtan,  
 Nekez agerturen da haren parerikan.



Lissardy Hazparneko erretora zen Adéma bikario gazteak lehenik lagundu zuena

-8-

Berrogoi-ta-zazpiko Irungo partida...  
 Sekulan halakorik nun ikusiko da!  
 Kaskoinaren trunkoa ez zaitela bira,...  
 Hark han eman zituen guziak azpira.

Lau urte lehenago «kolera izurriteak» doluan utzi zuen herrian, beldurrak etsipena sortzen

zuela ulerturik, bikarioak pilota partidak antolatu zituen bihotzen alaitzeko. Baina sukar ustela eritasunak berriz herioa ekarri zuen, Kaskoina famatua ere errautsiz, «bikarioak azkeneraino lagundurik». Une latz horietan apez gaztea «buru argi bezain bihotz handiko gizona» agertu zen. Hazparnen mota guzietako langileak gurutzatu zituen. Ditzolari, txiste egile eta pilotazale frango bazen baina jende aspergarrikeri ere.

Gabaz Akhelarretik  
Mainguka jinak,  
Hasten dire goizetik  
Gure sorginak,  
Debruz eginak,  
Sist handik, sast hemendik.  
Zer listafinak  
Laphar, ausinak!  
Sendatzea luze dik  
Hek egin minak.

Emazte ele-txarkariak (ikus pluralak eta lexikoa batez ere leizafina inpektua emazte gaixtoaren metafora) ditu etsaiak *Hitzontziak* testuan 1857an. Autografikua ote da eta bere buruari ari ote zaio «luze dik» erraitean?

Hazparnen, bazituen adiskide leialak ere. Adémak 1859 urtean bataiatu zuen Pierre Broussain, ondoko belaunaldiko mediku euskaltzalea, Hazparneko auzapez eta euskaltzain izan zena. Barrandegiko familiarekin harremanetan zen ezen 1891n departamendu


osoko erregezaleen arteko bazkarian partaide zen eta «Chenelon jaun senaturrari eta haren konpainiari Bazkal ondoko usaia xaharreko koplak» kantatu zizkien.

Bikarioaren lana ez zen kantonamenduko hiriburuan mugatu: inguruko herrietako Elizaren bizian ere aktiboki parte hartu zuen. Ahurti herrian Belloc-eko komentua estrenatu zuten egunean, Adémak asmatu bertsuak xaramelatu zituzten. Elizkizun berezietako kantikak ere asmatuak zituen: apez gazteen lehen mezan edo «apez sartze» egunean kantatzeko adibidez. «Misionetako bertsuak egiten zekien bikarioa» famatua bilakatu zen katiximarako, beila egun eta elizkizun nagusietan kantatzeko kantika ainitz ondu baitzuen. Sainduen biziaz ere jakitate zabalatu zuen Erretorika klaseetan ikasiak baliosak ziren herrietan aldizka egiten ziren «misioneak» izeneko otoitz eta gogoetaldi egunetan.

## **2) Bidarriko erretore 12 urtez: 1860-1872**

Adéma Bidarriko erretore izendatua izan zen 1872an. Haurtzaroko giro berdintsua aurkitu zukeen han: laborari, mendiko langile, mugazain...

Apezetxearen eraikuntzarako behar ziren harri, zur, garraiolari, ofiziale eta... diru biltzeko, erretora ez zitekeen besoak kurutzeko gelditu. Bazekikeen zer, nori eta nola eskatu. Egitasmo handien inguruan herritarren fe-



Hamabi urtez, obra ainitz egin zuen, erretoretxea xarmanteko tokian eraiki besteak beste

deratzeko eta xedeak gauzatu arte tinko irauteko bertute eta pazientzia bazuen. Piarropiako lan guzien artetik, garai hartan, arkeologia eta arkitektura sakratua barnatu zituen. Orduko bertsuetan oroigarriena «Xuriko» dugu, Joanes Otxalde herriko bertsulari «gorri» bihurriarekin lankidetzan 1867an egina. Bertsu horiek «neurtitz-gudukotzat paratuak izan ziren, Otxalde bidarraitarrak lehenik marruskaturik eta Zaldubi senper-tarrak berregindurik». Sari ofizialik ez zuten ardietsi baina iparraldeko jendeak eman zion sari ederrena: herrikoitasuna. «Mehetegiko xakurra» lehenbiziko hitzak emanez izenburutzat, ehun urteren buruan oraino, ipa-

rraldean kantu arras ezaguna da eta ikas-kizunak badu gaurkotasunik:


Gose dagonaren ganik

Ez daitekela lan onik.

Gure herria aldizkarian 1931ko epailean agertu ziren 25 bertso, Baionako jaun apezpikuari eskainiak «Biba Bidarra!» izenburupean. Bidarrin 1905ean gertatu setiatze entseguaren kronika dugu, estilo epikuan. Nahiz bukaeran data erdaraz eman zuen «Mars 1906» eta «Zaldun» izenpetu, estiloari dagokionez iduri luke Zaldubyrena dela. Testu hori erretor ohiak herritarrei zien maitasun eta errespetuaren oihartzun ozena da.

### 3) Atarratzeko apez nagusi 18 urtez: 1872-1890

1872 urtean Atarratzeko erretor nagusi izendatuz, Lacroix apezpikuak ozkaz goratu zuen baina ... Agustin Chaho gorriaren kantonamendura igorritz. 1870eko irailaren 4an sortu III. Errepublikaren kontra batu ziren indar kontserbadore guziak eta 1871n barne-



Eliza berriak baino xarma gehiago bazuen xaharrak

kaldean «xurien» aldeko eta «gorrien» aldeko bozak erdibanatuak ziren. Kostaldean aldiz, errepublikazaleek bi herenak berenganatu zituzten. Egoera ez zen beraz eroso Adémarrentzat. Haratu orduko gainera, erretorak eliza berriaren apaintzeko eliza zaharreko erretaula ken zezaten ukatu zuen eta Pees auzapezarekin tira-bira gogorra sortu zen.

1875. urtean, «Ohorezko kalonje» izendatu zuten eta 1876ko Sarako lore jokoetara «Errepublika» bertso lerro sarkastikua igorri zuen. Epaimahaikideek lehen sailkatu zuten, teknikoki hobereana zelako, baina ez zioten saria eman ozarregia kausiturik, arriskua ikusi zutelako. Epaiketa hori ez bide zuen Zaldubyk onetsi publikoki adierazten baitzuen euskaltzaleen gehiengoa ez zela gehiago «xuria». Iskanbila ez zitekeen isilpean gelditu eta «gorrien» karra piztu zukeen, Xuberoan bezala, iparralde osoan.

Errepublika saileko 36 hirukoetarik boskarrenak hauxe dio:

Liberté, Egalité eta Fraternité

Ah! hiru gezur hoiek egiak balite!

Ai, ai, ai! mutilla, egiak balite!

Ordutik, dotrinari dedikatu zizkion indarrak, mistizismoan berebaitaratu balitz bezala. Jubilau urte sainduaren karietara liburu berezia osatu zuen 1875 urtean. Lourdes, Betharram edo Sarrance-ko otoiz-



Adémaren kantika ezagunenak: «Gurutze sainduari» (1877), «Amodio Birjina Mariari» (1877), «Amodio ohore» (1877), «Uholde baten pare» (1877)

-lekuetara joaiten ziren beiliarientzat gidaliburua *Eskualdun peleginaren bidaltzailea*. 1877. urte plazaratu zuen eta kantika andana asmatu.

Adémaren kantika ezagunenak ditugu «Gurutze sainduari» (1877), «Amodio Birjina Mariari» (1877), «Amodio ohore» (1877) eta «Uholde baten pare» (1877).

Halere, Xiberuan iragan 18 urteak baliatu zituzkeen euskalkiaren ikasteko nahiz Xiberutarren usantxen ezagutza hobetzeko. Baina

hautetsi nagusiarekilako harremanek ez zuten hobekuntzarik ukan.

Handik joan ondoko urtean oraino, bien arteko gerla pil-pilean zegoen, publikoki. *La Semaine de Bayonne* astekari eskuindarrean (Zaldubyk?) plazaratu artikulu batek Atarratzeko hautetsia sutan eman zuen eta 1891ko uztailaren 17ko *Eskualduna* astekariko «Nouvelles du Pays» atalean ihardoki zuen, Zaldubypertsonalki laidostatuz. Zahartzearekin, jitezko malgutasuna higitu ote zitzaion? Ala kan-

biamenduen errotaren indarrari kontra egiteko asmoz, erradikalago bihurtu zen?

Senperrak, bere ideologian sendo zirauen: «Betirisants» bigarren kantu polemikua plazaratu zuen 1890.urtean, gaztaroan erabili miseriaren alegoria berpiztuz.

Hona Errepublikaren etsaiak 1890ean idatzi zituen 10 bertsuetarik boskarrena:

Betirisantsen politika,  
Bera laxo, bertzeak tinka;  
Gero «Bibe la liberté» errepika.  
Jendea dabilka  
Tiraka, purtzika,  
Legar eta lege berri ukhaldika.  
Nausi nahiz, oro gaindizka,  
Bainan oro ezin aldizka.  
Diote hori dela Errepublika.  
Diote hori dela Errepublika.

Adéma kalonje izendatu zuten 1890eko uztailaren 10ean eta Baionako katedralera deitua izan zen. Garai hartan hasi zen euskararen eta euskal ohiduren ikertzen. «Pilotariak» bertsu lerro luzeari beste 11 bertsu gehitu zizkion 1890 urtean. Handik laster, 1894 urtean, erreboteaz liburuxka dokumentatua argitaratu zuen, erdaraz. Izenburuko hitz zenbaitek euskaldunen apologista bihurtu zela pentsaraz lezakete.

Pilotaz gain, txotxongiloetan eta zirkoan ere loriatzen zen. Eta, han agertuz kalonjeen fama ona histen ahal zuela erraiten ziotelarik, elkorrena egiten zuen.



Eskemak arrotzentzat baitezpadakoak ziren, jokoak ulertu nahi bazuten

## Euskalduna, euskaltzalea eta euskaralaria

Euskarazko olerki gehienak, *Kantikak* eta *Neurtitzak* liburuan (*Klasikoak* bildumaren 47. alean) bilduak dira hiru ataletan honela sailkaturik: 31 kantika, 18 alegia eta azkenik gizarte gaiei, politikari eta ohidurei dagozkien 21ak. Gehientsuenak «gauza edo iskribu serio... eta Elizakoetan» sar daitezke eta besteak aldiz «gauza profano edo politikako edo kantu irri egiteko» sailekoak dira: euskaldunen gorazarrez eginak (himnoa, «Zumalakarregi», «Eskualdunak» eta «Pilotariak»), politikari lotuak («Errepublika», «Betirisants», «Tribunaletako gurutzefiken khentzeaz») eta gizarteko kezken aipamenak («Ameriketarako bidean», «Laborariak», «Martin eta Kattalin», «Xuriko»).

Bi sailetako lan horiek arrakasta iraunkorra ukan dute, elizetan nahiz kanpo. Bakar batzuek «primak» ukan zituzten Abadiaren Lore jokoetan, Zalduburi omena ekarriz. Baina literaturazalearentzat helburu (politiku edota dogmatiku) zehatzik gabekoek badute interes berezia eta, Zalduburen lanetan lirikoek «Amaxo» eta «Primadera» ditugu.

Bertsolaritzaz gauza ainitz bazekien eta teknika hori erabiltzen zuen, hitzak doinuari egokituz. Kantari gaitzaren fama ere zuen baina, dena den, ez dugu uste bertsutan bat-

-batean aritzen zela. Ohargarri da bestalde, neurtitzak oro maiuskulaz hasten zituela, Frantziako olerkari klasikoek ohi zuten bezala, eta ez gure bertsolariek bezala. Musika landu zuen, baina ez da frogatua melodiak osoki berak asmatzen zituela. Kantari ona zen eta kantuz ari zen gogotik, ingurukoak sustatuz. Eta, xahartzean boza erlastu zitzaionean, soinurik atera gabe ere, aitzina ari zen kantuz, «play back» gisara. Euskarari errespetu handia zion eta erdaldunek euskaraz kantatzean xuxen ahoska zezaten, fonetika oharrak idazten zituen eskuizkribuetan.

Adema olerkariaren kantikak eta kantuak kantatzen dira gaurregun oraino. Adibidez, Lapurdiko Haurrock kantari taldeak berriki haren testu bat sartu du, alegiak kantatzen dituzten diskoan.

Hitz lauezko lanak ordea (hala nola predi-kuak) ez dira bilduak izan. Gure ustez, olerkiak baino hizkera naturalagoan idatziak daitezke eta «zizelkatu gabeak», igandetik iganderako epean behar baitzituen osatu. Baina Zalduburen euskararen aztertzeke lehenik, eta gainera elizgizonak etika eta ideologia mailan herriarengan zuen eraginaren baloratzeko baliosak litezke.

Mende bukaeran sahetsezinezko euskaralaria bihurtu zen euskaldunen artean eta euskaralari erdaldunen artean ere. Euskal kultura hedatzeko asmoz erdaraz idazten zuen. Bertsularitzaren esplikatzera lehiatu zen bezala,

pilotako arauak ere azaldu zituen garai berean. Pedagogia lan horietan gure gauzentzat zuen atxikimendua nabaria da eta azpimarratzekoa da 1899ko otsailetik haste *Eskualduna* aste-karian zatika plazaratu zuen «Règles de la prosodie basque» neurtitzgintza-legeen bilduma. Arnault Oihenartez geroztik, iparraldean nehork ez zuen alor hori arakatu eta kantuek nola osatzen zituen jakiteko hortxe dugu giltza. Azkenik argitaratu zutabeetarik batean, bere jakitateak eta esperientziak baimendurik, Zalduby literatur kritikagile zorrotz agertzen zaigu *Irrintzina* sariztatu berriaz publikoki egin zuen komentario edo iruzkinen. Errefera berehala ukan zukeen ezen, doinu eztiagoz segitu zuen hurrengo alean, erran gogo zituenak deplauki erran arren.

Biziko azken uneraino ikertzen eta bere ikerketen emaitzen hedatzen ari izan zen: 75 urtetan japonieraren eta euskararen hotskidetetasuna aipatzen zuen *La semaine de Bayonne* astekarian, poxika edo atalka. Gai exotiku honek hizkuntzalaritzari ekarpenik egin zionetz ez dakigu baina, iparraldeko euskaltzaleen «patriarka» bizi osoan ikasle unaezina izan zela erakusteko balio du.

Azken finean, sorkuntza eta azalpen lanetan berdin perfektionista zen. Argitaratzeko asmoz osatzen zuen eskuz apaindu kantika bilduma aratzak ez du hori ukatuko. Gizon zorrotza zitekeen lehenik bere buruarentzat: alabainan, azken 30 urteetan egunero ohar bat idazten zuen liburuxka batean eta, egune-

roko gauza arinak aipaturik ere, egunkari baten jarraituki atxikitzeak diziplina gaitza eskatzen du.

1892an Azpeitiko euskal jaietan Zaldubyri omenaldia egin zioten, euskal letretan itzal handia bereganatu baitzuen. Euskararen akademia amesten zuen baina dirua eskas. Antonio Abadiak testamendu bidez utzi dirua zela-eta, 1901ean, Guilbeau donibandar mediku gorria ortografia batzeko topaketa baten antolatzerara abiatu zenean, Zaldubyri bermea eskatu zion Champion nafarrari bezalaxe. Biak orduko euskalgintzako erreferentziak ziren beraz. Oztopoak gainditurik, 1901eko Hendaiako egun historikuan Zalduby talde buru zegoen baina ez ziren gauzak uste bezala joan. 1902an, beste entsegu bat egin zuten baina Hondarribiko topaketa ere antzua gertatu zen. Ideia politiku ezberdinetakoekin lan egiteko aspaldiko usaiagatik, jakitatea eta larderia guziagatik, biltzar haietako solaskideek beste trebeziarik eta indarrik bazuten teknikoki. Ondoko urteetan, Adémaren gaitasun eza agerian utziz, ardura nagusia Arbelbideri proposatu bazioten ere, ezinezkoa izan zitzairen euskal akademiaren sortzea.

Jean Etxepare idazleak Zalduby pertsonalki ezagutu zuen Aldudeko uretara (ur onetara) joaiten baitzen eta haren lekukotasun pollit bat azpimarratu nahi genuke. «Zernahi bazakien Euskal herriaz, Euskal herriko ohitzez, sinesteez, jaidurez, Euskal herriko xokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez.»





Urrunago, gizon xahar eder hura deskribaturik, haren nortasuna gorai patzen zuen erranez «denentzat bazuen elhe on edo behako ezti bat. Lañoa zelakotz eta xehea ezin gehiago, maite zuten orok».

Bere etsai amorratuek ez zuketen batere ikusmolde edo aburu bera, bistan da, baina medikuak erraitean handikien jatorrikoa izanik ere «xehea» zela zinez jendekina zela

Zaldubi gela, herriko elkartetxean



Senpereko ikastola, Zaldubi ikastola

agertu nahi duke, jendartea sozialki zinez sailkatua zela asmaraziz.

Zalduby bizi osoan leial egon zen bere familiaren balore eta ideologiari: «Euskaldun fededun» bikotea sakratua zitzaion. Politikan ausart eta tematsu agerturik ere, gizon gisa bere etsaiei errespetua erakutsi zien. Xede baliosentzat, kalapitak ahortzi eta denekin gizonki lanari lotzen bazekien. Horregatik hartu ote du Senpereko elkartearen etxeko gela

batek Zaldubi izena? Inguruko gelek beste bertsolari batzuk omentzen dituzte, Zaldubyri konpainia ezin hobea eskainiz.

Azkenik, Senpereko herriko etxearen lehen auzoa den ikastola Zaldubi ikastola izendatu zuten, duela hamar bat urte, ekimenaz baliatuz hurrei haren kantu zenbaiten irakasteko, euskararen eta euskal kulturaren alde bermatu zen senpertar euskaltzalearen omenez. Jarraitzaileak dituen ez ote da bidegile?

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Zaldubiren familiari
- Henri Duhau senperrari
- Xipri Arbelbideri

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2594-8 (Lan osoarena)  
978-84-457-2596-2

L.G.: BI- 2585-07

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística